


# ARTEA DONOSTIAN

## IBILBIDE ESKULTORIKOAK



## IBILBIDEA BELLE ÉPOQUE

**X**IX. mendearen bigarren erdia eraiki nahi zen hiria definitzeko eta abian jartzeko garaia izan zen. 1813an hiria erre ostean, berreraikitzea erabaki zuten. Berehala ohartu ziren, ordea, hiria txiki geratu zela eta hazi ahal izateko harresiak eraitsi behar zirela.

Harresiak eraitsi ondoren eraiki beharreko hiriak merkataritza-trukerako pentsatutako eta diseinatutako hiria izan behar zuen. Baina zenbait gertakari tarteko (hiriburutasuna, erreginaren udaldiak, Donostiako ekonomian merkataritzak indarra galdu izana...), hiriak udaldiaren inguruko zerbitzuen alde egin zuen.

Erabaki horren eraginez eraiki ziren boulevarda, kasinoa, antzokiak, hotelak, eta horregatik jarri zituzten eskulturak lorategietan, haiek apaintzeko. Hala, beraz, lorategi horiek erabili zituzten hiriko bizimoduan garrantzitsuak ziren pertsonen omenaldiak egiteko.



### 1 RAIMUNDO SARRIEGUI (1964-2002)

**José Lopetegi Goikoetxea**  
(Donostia 1896 - ezezaguna)

eta **Nino Barriuso** (Palentzia 1939).

Raimundo Sarriegui (Donostia 1838-1913). Musikari donostiarra; txaranga propioa sortu zuen eta hiriko jai ugaritan entzun daitezkeen musika ugari konposatu zituen Raimundo Sarrieguik, hala ere, Donostiako martxa ezagunaren eta danborradan jotzen diren ia pieza guztien konposatzaile izateagatik da ezaguna batez ere. Donostiako martxa joz ematen zaie hasiera danbor eta upelen errepiken 24 orduetara, eta hiri osoa danborradaz betetzen da.

Musikariaren bustoak eta danbor-jolearen irudiak osatzen dute eskultura multzoa. Egungo eskulturak 2002an egin ziren eta 1964an hormigoiarekin egindako jatorrizkoen kopia dira.



## 2 VENUS

Venus. Egile ezezaguna

Lorategia apaintzeko beste helbururik gabe jarritako eskultura-lanaren adibide argia. Horretarako, Venus baten, maitasunaren jainkosaren, eskultura bat aukeratu zen, modu klasikoan irudikatuta.



## 3 SECUNDINO ESNAOLA (1954)

**Julio Beobide Goiburu**  
(Zumaia 1891-1969)

Secundino Esnaola (Gipuzkoa, Zumarraga 1878 – Donostia 1929) konposatzaile eta abesbatza-zuzendari ezaguna izan zen. Donostiako Orfeoiko zuzendari izendatu ondoren, berrikuntzak ekarri zituen, bertan emakumeak eta umeak onartzea ahalbidetu baitzuen.

Musikariaren heriotzaren 25. urteurren-ospakizunean, Orfeoia hiriari Secundino Esnaolaren bustoa oparitzea erabaki zuen. Horretarako, Julio Beobide artista zumaiarrekin jarri ziren harremanetan. Artista Ignacio Zuloagaren lagun handia izan zen.

Bustoa, Zuloagaren estiloari jarraituz egindakoa, errealista da, eta aurpegiaren ezaugarrietan lan handia du eginda.



## 4 OKENDO ALMIRANTEA (1894)

**Marcial Aguirre Lazcano**  
(Bergara, 1841 – Donostia 1900)

Antonio Okendori (Donostia 1575-A Coruña 1640) omenaldia egiten dion eskultura, izen bereko plazan dagoena, 1878an eskatu zion Donostiako Udalak Bergarako Marcial Aguirre eskultoreari, Gipuzkoako Foru Jauregiaren fatxada apaintzen duten ospetsuei eskainitako irudien egileari.

Hiru urtez, egileak San Fernando Arte Ederren Errege Akademiarekin borrokan aritu behar izan zuen, xehetasunengatik artelanari ez baitzion oniritzia ematen: Aguirrerren Okendo gazteegi iruditzen zitzaien, jantzita zuen korazaren zorrozatasun historikoa zalantzan jartzen zuten... Zailtasun horiei gehitu zitzaizkien aurrekontu-zailtasunak, baina azkenean, estatua 1894ko irailaren 12an inauguratu ahal izan zuten, Okendok holandarren aurka izandako garaipen garrantzitsuaren urteurrenean. Elementuen aurkako borroka horretan, ezinbestean, inaugurazioa baino astebeite lehenago, eskulturaren beso bat hautsi zen galdategian. Inauguraziorako, margotutako eskaiolazko eskultura bat egin zen, eta galdaketan berriz egin zenean, brontzezkoarekin aldatu zuten.



**5 USANDIZAGARI ESKAINITAKO  
MONUMENTUA (1916)**

**José Llimona Bruguera**  
(Bartzelona 1864 - 1934)

Jose Maria Usandizaga (Donostia 1887 – 1915) musikari eta konposatzaile handia izan zen, eta gazte hil zen arren (28 urte), musika-lan handia utzi zuen. Jose Maria Usandizagaren heriotza benetako “lurrikara” izan zen Donostian. Jose Maria oso sartuta zegoen hiriko bizi sozialean (ohikoa zen kafetegi eta kasinoetan jotzen ikustea), izaera bromazalea zuen eta harreman sozial handiak zituen, beraz, hirian oso maitatua zen. Maitasun eta galeragatik pena horren eraginez, Donostiako Orfeoiak konpositoreari omenaldia egiteko eskultura sustatu zuen, horretarako, garai hartan izen ona zuen Jose Llimona eskultore modernistarekin jarri zen harremanetan.

Estilistikoki, esan dezakegu Inspirazioaren irudi alegorikoa egiteko modua tipikoa dela Llimonaren artelanetan. Kide nabarmenetako bat galtzeagatik triste dagoen emakume gisa aurkeztu zuen. Jose Maria Usandizagaren bustoaren errepresentazioa kontzeptu akademikoagoko kanonen araberakoa da.



**7 EMAKUME DANTZARIAK (1911)**

**Egile ezezaguna**

Artelan hau Udalak hiriko lorategiak edertzeko eskulturak utz ziezazkion Madrilgo Museo Modernoari (egun Prado Museoa) egindako eskaeraren ondorioa da. Bertan, hiru dantzariren errepresentazio ederra ikus daiteke. Hiru gazte dira, bakoitzak musika-tresna bat du, eta dantzan dabilta musikaren doinutan. Haien errepresentazioa garai helenistikoetatik gertuago dago, forma ez oso estatikoekin eta ileen adierazpen barrokoagoarekin.

Gazteetako bik enborra erakusten dute, dantzaren eraginez soinekoa ireki baitzaie. Erdiko irudia, artelanaren konposizioa zehazten duena, beste bien arteko ardatza da, eta bertan orekatzen da eskuineko besoaren mugimendua gonak eskuinerantz egiten duen mugimenduarekin.

**6 URDANTEA, ELKANO, OKENDO, LEZO  
ETA LEGAZPI (1885)**

**Marcial Aguirre Lazcano**  
(Bergara, 1841 – Donostia 1900)

Gipuzkoako itsasgizon ezagunen 5 bustoko multzoa, bostak itsas bataila eta balentria handiekin lotutakoak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregiaren fatxadaren erdigunea koroatzen dute.

Marcial Aguirrek egindako 5 bustoek agerian uzten du probintziak itsasoarekin izandako harremana eta XIX. Mende amaieran Gipuzkoan ospetsuak ziren pertsona-ereduak.





**8 MANDASKO DUKEA (1926)**

**José Joaquín Barriola**  
(Donostia 1895 – Venezuela, Caracas 1984)

Fermín Lasala y Collado (Donostia 1832 – Madril 1918), Mandasko dukea Cristina Brunettirekin ezkondu zelako. Donostiar hau, politika arloan, diputatu, senatari, sustapen-ministro, Paris eta Londresen enbaxadore izan zen, besteak beste, eta aldaketa handiko garaian hiriarri garatzen lagundu zion. Hala, harresiak eraisteko batzordeko kide izan zen, Madril-Irun trenbidea eraikitzeko akordioan parte hartu zuen. Hil zenean, bere liburutegia eta Cristina Eneako lorategiak eta Jauregia Donostiako Udalarri eta Gipuzkoako Foru Aldundiari utzi zizkion. Horiek eta askoz gehiago egin zituenez, bustoa egin zitzaion eta etxe izan zuenaren aurrean jarri zuten.



**9 MARIA KRISTINA ERREGINA (1918)**

**Marcial Aguirre Lazcano**  
(José Díaz Bueno, Madril 1894 – Donostia 1979)

Monumentua elementu alegoriko eta sinbolikoen etengabeko deia da.

Hala, erregina tronuan oin bat duela irudikatzen da. Alde banatan, bi frisotan, herria eta intelektualak sinbolizatzen dira; erreginarengana jotzen dute hura omentzeko eta maitasuna adierazteko. Muturretan, Karitatea eta Bertutea irudikatzen dituzten bi irudi daude: erreginarengan nabarmendu nahi diren ezaugarriak.

Haren asmoen noblezia adierazteko, Antzinasun Klasikoa ekartzen du gogora, monumentuak hartzen duen puntu erdiko formaren bidez. Monumentuaren atzealdean, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroaren lau irudi alegoriko daude, elkarrekin lotuta eta horiek zaintzen dute erreginaren tronua. Irudi horien beheko aldean, iturri bat dago, erreginak Donostiari ematen dion aberastasun-iturriaren sinbolo gisa.